

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2013ko maiatzaren 23a. IX. urtea. 2.599. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Hernio-Gazume mendialdea hobeto ezagutzeko zentroa ireki dute Alkizan

Bioaniztasunaren kontserbazioa, tokiko garapen jasagarria eta bien arteko harremana sakontzea ditu helburu Fagus Alkiza izeneko interpretazio gune berriak

Alkizako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak gain, babes bereziko eremuaren inguruko udal hautetsiak izan dira inaugurazioan ◊4



Jon Umerez, Ana Isabel Oregi eta Jon Uriguen, atzo, interpretazio zentroaren inaugurazio ekitaldian. M. IRAOLA

Egunerokotasunean biodibertsitatearen alde egiteko eskatu dute ikasleek

Tolosa, Ibarra eta Alegiako ikasleek bi urtetan biodibertsitatea jorratu dute; Tolosan elkartu dira egindako lanaren berri emateko ◊3



Tolosako Zerkausian elkartu ziren ikastetxeetako ikasleak. A. IMAZ

Kukua jaitsi aurretik ere festa izango da Anoetan

Hilaren 29an lehertuko da herriko jaietako suziria, baina bihar bertan hasiko da festa; larunbatean Kuadrillen Eguna ospatuko dute ◊6

Gaur hasi eta ekainaren 1era bitartean kulturaz jantziko da Lizartza ◊7

Bertsolaritza eta mendia lotuko dituzte Bedaioko Asteburu Kulturalean ◊5



Laser Promozioa:
Maiatzaren 20tik ekainaren 3ra

Ingleak, 5 sesioko bonoa: 300 euro
Besazpiak, 5 sesioko bonoa: 195 euro

SHUYANA
ESTETIKA: Eskolapiotako
Lorategiak 3,1A. T. 943 675 489
KOSMETIKA:
Korreo 1. T. 943 671 468

VI. Txapin Festa Ahora! Astearekin elkarlanean ospatuko dute

Baltsa jaitsiera izango da aurten ere, eta Zerkausi azpian dago baltsak egiteko behar den materiala

Itzea Urkizu

Sei urte beteko dira aurten, Gazteok Txapinetan taldea sortu, eta gazte tolosarrak lokaletatik atera eta elkarren artean harreman sareak sendotzen hasteko helburua jarraituz, Txapin Festa eguna lehenengoz antolatu zuten geroztik. Larunbatean izango da jai eguna, eta aurten, Ahora! Asteko antolatzaileekin elkarlanean aritu dira; gainera, Tolosako Gazte-ria sailaren, Harituz Bertsozaleen Elkargunearen, Kalean Txarngaren nahiz GKO Galleryren laguntza ere izan dute arduradunek.

Aurtengo berezitasunik nabarmentzena, Ahora! Asteko egitarauarekin osatu dutena uztartzea izango da Txapin Festan: «Baina ez da beste eragile batzuekin batera Gazteok Txapinetan elkarlanean ariko den lehen aldia. Hasiera-hasieratik gure filo-

sofia izan da Tolosako hainbat eragilerik laguntzea, eta baita beren ekarpenak jasotzea ere. Horregatik, Ahora! Asteko antolatzaileek gugana jo zutenean, behar emen genien baiezkoa, eta elkarlana aurrerapauso bat izan da», azaldu dute Txapin Festako antolatzaileek.

Tolosako gazte lokalen inguruan jaio zen festa egun honen ideia, baina «azken urteotan gazte gehiagorengana heldu gara, eta beraz, anitzak gara adinean nahiz jatorrizko giroetan», diote.

Honen guztiaren gainera, ordea, helburu bakarra nabarmendu du Gazteok Txapinetan taldeak: «Gazteok elkar ezagutu eta harremanetan jartzea». Bide beretik, festa herrikoiki, euskaldun eta parte hartzaileak sortzea izan da betiko jomuga, eta beraz, «ahalik eta gazte eremu zabalenera aukera luzatzea» izan da arduradunen nahia, batetik. Bestalde, «gazteoi eragiten diguten arazo eta aldarrikapenek tokia izango duten eguna da Txapin Festa, Tolosako kaleak gazte izaeraz bete-ko ditugun eguna», diote.

Honen harira, Txapin Festaren hizkuntza naturala beti euskara izan dela azaldu dute, eta honen-



Materiala Zerkausian hartu beharko dute, izena eman ondoren, baltsa jaitsieran parte hartu nahi dutenek. I. URKIZU

bestez, antolakuntza nahiz festa eguneko parte hartzea beti euskaraz bizi izan dituztenez, aldarrikapen guztiei ongi etorria ematearekin batera, euskararen aldekoak bereziki babesteko duten asmoa azpimarratu dute: «Txalotu egin nahi dugu Ahora! Asteak askotariko eragileak euskararen ingurura biltzeko egin duen ahalgina».

Aipatzekoa da, larunbaterako bazkari txartelak salgai daudela jada, Raku, Meskal eta Denak tabernetan, eta baita Ahora! dendan nahiz Laskorain ikastolan ere. Era berean, baltsa jaitsiera izango da larunbateko jaiaren ere. Duela bizpahiru urte berreskuratu nahi izan zuten, lehen sanjoa-

netako kuadrilla egunean egiten zen jaitsiera. Baltsa jaitsieran parte hartu nahi duten gazteek, beraz, kultur etxean izena eman beharko dute lehenik, eta Zerkausi azpian eskuratu beharko dute materiala gero.

Palestina Leidor aretoan

Gaur bertan, Ahora! Astearen barruan, 5 kamera apurtu eskainiko dute Leidorren, 19:15ean eta 21:45ean. Emad Burnat palestinarra eta Guy Davidi israelarrak sorturiko filma da, eta grabaketa barrera apurturiko bost kamerarekin bildutako irudiek osatzen dute dokumentalaren oinarria eta ildoak.

Tolosan bizi den Tamer Birawi

palestinarrak euskaraz aurkeztuko du Palestinako Bil'in-eko erre- alitatearen zati bat ikusleari erakutsiko dion filma, honako leloari jarraituz: «Ehun gizon armatuk ere isilarazi ezin dituzten ahotsak badaude».

Nabarmentzekoa da, gainera, beste hainbat sari eta izendapenen artean, Oscar sarietan dokumental onena izateko izendatua izan zela 5 kamera apurtu.

Azkenik, Ahora! Asteko egitarauan eguraldiak eragin dituen aldaketei dagokienez, igande arratsaldean bertan behera geratu zen skate ikastaroa ostiralean burutuko dute Tolosa Skate Taldeko kideek, 17:30ean, Usabalgo skate parkean.

↓ Ahora! Txapin festako egitaraua

MAIATZAK 25, LARUNBATA

- **Goizean.** Argitxoren bila jolas izango da, Laskorain ikastolako lehen hezkuntzako ikasleei begira.
- **11:30.** Kalejira egingo dute gazte lokaletan barrena, Bera-zubiko lokaletatik abiatuta.
- **12:00.** Tolosa Kantari eta Giro Arte dultzaina taldea Alde Za-

harrean ibiliko dira hileroko kantu jira osatuz

- **12:00.** Mural pintaketa izango da Trianguloa plazan.
- **12:30.** Baltsa jaitsiera hasiko da.
- **14:00.** Herri bazkaria izango da Plaza Berrian. Txartelak salgai daude, 12 euroren truke, Raku, Meskal eta Denak tabernetan, Ahora! dendan eta Laskorain ikastolan.

- **16:00.** Harituz Bertsozaleen Elkarguneko Haritz Mujika eta Unai Mendizabal bertsoarien saioa izango da Plaza Berrian.
- **16:30.** Ahora! mosaikoa Plaza Berrian.
- **17:00etatik aurrera.** Jolasak Plaza Berrian eta Euskal Herria plazan. Tartean, Kalean Txarngara ariko da kalejira alaitzen.
- **20:00-23:00.** Sardina jatea Zerkausian.
- **22:00.** Zesuma taldearen kontzertua izango da Zerkausian.
- **Gauean.** DJak izango dira Tolosako zenbait tabernetan.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992.

Irudia > Tolosa



TOLOSAREN LITERATURA

Tolosako euskal letra batzuk erakusketari jarri dute Errotan, Ahora! Asteko antolatzaileek eta haur liburutegiak. Tolosarren literatura lanak ezagutzeaz gain, lehiaketa ere martxan jarri du, gainera, liburutegiak. Garbiñe Ubedaren *Mila ezker*, Karlos Linazasororen *Udalbatza bahituaren kasu polita* eta Xabier Olarrak itzulitako *Jakobian eraikina* irakurri, galdera orria bete eta liburutegian bertan aurkeztu beharko da, Ahora! opari sorta jaso ahal izateko. ITZEA URKIZU



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Metalgintzako langileak grebara deitu dituzte bihar

LAB sindikatuak bere deialdien berri eman du; goizean Donostiara joango dira, eta arratsaldean Tolosara

A. Imaz

LAB sindikatuak metalgintza sektorean greba orokorra deitu du maiatzaren 24rako, biharko. Deialdiarekin bat egin dute ELA, CCOO eta UGT sindikatuek, baikoitza bere irakurketa eta berezitasunekin. Tolosaldeko LAB sindikatuak eskualdeko langileak Donostiara bideratuko ditu goizean, eta arratsaldean, Tolosan egingo dute mobilizazioa, Trianguloan, 19:00etan.

Deialdien berri ematerakoan grebaren arrazoiak ere azaldu ditu Tolosaldeko LAB-ek. Hitzarmen kolektiboa izan da egoera lehortu duena sindikatu abertzalaren iritziz: «Herrialdeko hitzarmena blindatzea eskatzen dugu metalgintzako mahaian; estatu-ko erreformaren gainera hemengo hitzarmenaren edukia man-

↓ Hitzorduak

BIHAR, MAIATZAK 24

■ **10:30.** Tolosako Trianguloan Donostiako mobilizaziora joateko hitzordua.

■ **11:30.** Herrialdeko mobilizazioa Adegiren aurrean, Donostian.

■ **19:00.** Eskualdeko mobilizazioa Tolosako Trianguloan.

tentzea, eta berau aplikatzeko betebeharrak enpresa guztietara zabaltzea». LAB sindikatuaren esanetan, Adegik erreformari ez dio uko egin nahi, eta horregatik, protestak Donostian izango dute lehen hitzordua, hain zuzen ere, Adegiren egoitzaren aurrean.

LAB sindikatuaren esanetan erreformak hainbat atzera pauso ditu berarekin: «Urteko jardunaldiaren %10eko flexibilitatea; hitzarmena ez aplikatzeko erraztasunak; hitzarmenaren azpitik adosteko aukera, ez da ahaztu behar orain arte legez kanpokoa zela hitzarmenaren azpitik sinatzea...».



Tolosako Zerkausion Alegia, Ibarra eta Tolosako ikasleak elkartu ziren atzo, euren lana azaltzeko. A. IMAZ

«Gu ondo bizitzeko, ezinbestekoa dugu biodibertsitatea zaintzea»

Tolosa, Ibarra eta Alegiako ikasleak biodibertsitatearen inguruan aritu dira lanean bi urtez

Asier Imaz

Tolosako Zerkausion eskualdeko hiru herritako ikasleak elkartu ziren atzo, biodibertsitatearen inguruan bi urtetan egindako lana plazaratzeko. Alegia, Ibarra eta Tolosako ikasleek biodibertsitatea zaintzea «beharrezkoa» dela aldarrikatu zuten, besteak beste, ondorengo onurak ekartzen baititu: «Elikagaiak, ur garbia, jan-tziak, aire garbia, energia eta erakuntzarako materiala».

Zerkausion elkartu zirenei biodibertsitatea zer den azaldu zien labor-labor: «Landare eta animalia aniztasuna». Horren inguruan egindako azterketen ondorioak ere plazaratu zituzten: «Biodibertsitatea ez dago behar adina zaintzen, izan ere, elikagaien ekoizpean pestizidak eta produktu kimikoak erabiltzen dira. Bestalde,



Bi urteko lanaren ondoren, adostutako aldarria irakurri zuten. A. IMAZ

obra handien eraikuntza, AHT adibidez, ibaiaren egoera desegokia, zabor pilaketa eta landare inbaditzaileekin...».

Guzti honen atzean, «herritarren kontzientziazio eta konpromiso falta dagoela» salatu zuten ikasleak. Kritika egitearekin batera, adibidea ematen lehenak izan nahi dutela ere agerian geldituzten, hainbat konpromiso publiko eginaz: «Zakarrontzi egokiak erabiliz berrerabili eta birziklatuko dugu; jendeari biodibertsitate-

aren galeraren inguruko informazioa emango diogu, eta gai honen inguruko proiektuetan gure iritzia eman eta parte hartuko dugu».

Alegia, Ibarra eta Tolosako ikasleak herritarrei euren konpromisoak hartzeko eskatu zien, deialdi zuzena eginaz: «Egunerokotasunean biodibertsitatearen alde egitea eskatzen dizuegu. Denon artean lor dezakegu: biodibertsitatea zaindu, eta bizitzaz gozatu!».

→ Laburrak

Languarre Eguneko bazkari txartelak salgai

ALEGIA ▶ Ekainaren 9an Languarre Eguna ospatuko dute. Bazkarirako txartelak erosteko aukera hilaren 31ra bitarte egongo da, eta Iskiñan, Erretiratuenean, Kurpilen eta kultur etxean jarri dituzte salgai. Bessetik, egun horretan ezingo da Languarrera kotxez igo. Antolakuntza autobus zerbitzua ezarri du. Igotzeko 11:30etik 13:30era ibiliko da, eta jaisteko, 18:30etik 20:30era.

Sutarri Dantza Taldean izena emateko aukera

ALEGIA ▶ Sutarri Dantza Taldeak datorren ikasturterako matrikula epea irekia du, 6 urteko gorakoentzat. Izen ematea Alegiako kultur etxean egin behar da, ekainaren 13a baino lehen.

'Arrhash Veneno' dokumentala, Otsabin

TOLOSA ▶ Jatorकिनен eskutik *Arrhash Veneno* dokumentala ikusteko aukera egongo da gaur, hilak 23, Otsabi gaztetxean. Ikus entzunezko emanaldia dokumentalaren zuzendariak aurkeztuko dute.

GAUR

19:15ean eta 21:45ean Leidorren "Hautsitako bost kamara" filma
20:00-23:00 Sardina-jatea Zerkausion eta Bideo Lehiaketako lanak ikusgai

BIHAR

17:30ean Skate ikastaroa Usabalgo parkean.
20:00-23:00 Sardina-jatea Zerkausion eta
21:30ean Txarangaren kalejira Sakramentinoetara
22:00etan Sakramentinoetan Bideo Lehiaketako lan finalistak eta Bonberenea txaranga eta lagunen kontzertua

Aste osoan (17:00-20:00):
Tolosako euskal idazleak erakusketa Liburutegian eta Ahora pintxoak tabernetan



MAIATZAK
19tik
25era

Gutuna

Zorionak Onddo Gazte Asanbladari

Idatzi honen bitartez, Amasa-Villabonako Udal Gobernuak Onddo Gazte Asanblada zoriondu nahi du, azken asteburuetan antolatutako ekintzen gatik.

Herriarekiko konpromisoa eta errespetua agertu da ekitaldian (besteak beste, ekintza ezberdinen ondorengo garbiketa lanetan ikusi da hau), eta inguruko gazteen elkarlana ere bultzatu da. Onddok prestatutako festa eta ekimenak herritarrentzat aberasgarri direla uertzen dugu, eta honenbestez, horrela jarrai dezazuen animatzen zaituztegu.

■ **Galder Azkue**, Amasa-Villabonako alkatea.

Foro Errepublikanoaren oharra

Apirilaren 8tik 14ra bitarteko astean indar bereziz bizi izan dugu Tolosan guzti herriaren eta pertsona guztien askatasunaren alde borrokatu zirenen oroitza-pen duina eta gogoan daukaguna.

Berriz ere ekarri dugu gogora erregimen frankistak jende asko zigortu zuela, bidegabe eta gogor zigortu ere, eta udal korporazio legezko bat kendu zutela kargutik 1936ko estatu kolpearen aldekoek. Eta orobat ekarri ditugu gure kaleetara II Errepublikaren oroitza-pena eta hark hainbat arlotan lortutako aurrerapen sozialak, baita herrien eta pertsonen askatasuna eta berdintasuna posible egingo dituen Estatu errepublikano baten eskaria ere.

Egun horietan bizi izan ditugun gauzetako bat ere ez zen posible izango eduki izan ez bagenu Tolosako Udalaren laguntzarik eta partaidetzarik. Hemendik nahi dugu egindako ahalegina eskertu eta gure konpromisoa erakutsi Errepublika libre eta sozialki bidezko baten alde, eta berriz ere aldarrikatu gure aurrekoen borroka ere errespetua.

■ **Garbiñe Biurrun**, Tolosako Foro Errepublikanoa.

Hernio-Gazumeren interpretazio zentroa inauguratu dute Alkizan

Bioaniztasunaren kontserbazioa, tokiko garapen sostengarria eta bien arteko harremana sakontzea ditu helburu

Mikel Iraola Alkiza

Hernio-Gazume mendialdea Kontserbazio Bereziko Eredu izendatu dute behin-betiko. Hori dela eta, inguru horren aberastasun naturala eta kulturala babestu eta ezagutarazteko, Hernio-Gazumeren interpretazio zentroa inauguratu dute Alkizan.

Eredu horretan pagoak duen garrantzia azpimarratze aldera, Fagus Alkiza gisa izenpetu dute interpretazio zentroa. Era berean, nazioartera zabaldu daitekeen izena dela azaldu du Jon Umerez Alkizako alkateak. Zentroak hiru ardatz izango ditu: naturarena, bertan jarduten duen gizakiarena, eta bi horien arteko harremanetatik sortzen den kulturarena.

Naturaren ardatzetik abiatuta, bioaniztasuna mantendu eta areagotzea da helburu nagusia. Ume-rezen esanetan, «bioaniztasunak berezko balorea du, biziarena. Bere galera guztiz arduratzeko modukoa eta arrisksua bihurtu den heinean gero eta gehiago jabe-tu gara honetaz». Ondorioz, eremu globaleenatik tokikoeneraino bioaniztasunaren kontserbazioa «guztiz beharrezkoa» dela aldarrikatu du.

Lehen helburu hori betetzeko lehen baldintza, Hernio-Gazume-ko mendi eta basoen aberastasun eta edertasunaren ezagutza dela adierazi du Alkizako alkateak. Horretarako, informazioa, dibulgazioa eta sozializazioaren beharra nabarmendu du. Horixe da interpretazio zentro berriaren dagoen erakusketaren zereginetako bat, gerturatzen direnak eremura hurbiltzea.

Baina, Umerezen arabera, ezagutza bermatuta ere, lehen helburu hori betetzeko beharrezkoa da garapen sostengarria lortzea, gi-



Hernio-Gazume mendialdearen mapa. FAGUS ALKIZA

zakia aintzat hartuta, bereziki baserriarrak: «Urteetan Euskal Herrian, landa eremuan, lurraren ustiapen aniztetik bizi ahal izan da, baina hori aldatu da eta lan mota asko galdu dira. Betiko ustiapen moduak jada ez du balio, eta hor bioaniztasunaren kontserbaziorako hartu den jarrera aukera izan beharko litzateke, hau da, errentagarria izan beharko du, ez zama».

Lanketa horretan, interpretazio zentroak bertako baserriarren esperientziak jaso eta aztertu, eta lehen sektoreko beste eragileekin uztartzeko guneak eta aukerak eskainiko ditu.

Horrek, ohituretan, ingurumenarekiko harremanetan, kontsumoan, ustiapen ereduetan eta formakuntzan aldaketak eskatzen ditu, eta kultura aldaketa hori izango da zentroaren hirugarren ardatza. Alkizan bertan naturaren materialak eta irudiak erabiliz lan egiten duten artista, idazle, iker-tzaile, irakasle eta herritarrekin hausnarketa bideak irekiko dituzte. Bide horretako lehen geldiduna *Kultura naturan eta natura kulturan* lelopean antolatu dituzten jardunaldiak izango dira.

Udaletxeko bigarren solairuan kokatzen den interpretazio zen-



Jon Umerez alkateak argibideak eman zizkien gonbidatuak. M. IRAOLA

troa, «xumea» dela esan du Alkizako alkateak: «Eskura izan ditugun baliabide mugatuekin abiarazi dugu, baina osatzen eta egokitzen joango gara».

Inaugurazio ekitaldian, inguruko herrietako alkateez gain, Ana Isabel Oregi Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua, eta Jon Uriguen Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo departamentuko diputatua izan ziren.

Animalia askoren bizileku

Babes Bereziko Guneak, bioaniztasunaren kontserbaziorako Europak Natura 2000 izeneko

sarearen barnean izendatutako ingurune bereziak dira. Hernio-Gazumeko pagadiak desagertzeko arriskuan dagoen faunaren bizileku dira, hala nola, lephori, erbinude edo muxar grisena. Goialdeetan eta harkaitzetan, belatz handiak eta sai arreak bizi dira. Kantauri kostalde mailan ere, mirotz urdinak habia egiteko aukeratu duen toki urrietako bat da.

Beherago, haritzek, lizarrek, ezkiek, zumarrek, astigarrek eta urritzek osatutako baso mistoa eta belardiak daude. Kareharrizko mendia izanik, xagusar espezie anitz bizi diren haitzulo eta leize ugari daude.



HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du

Sardina jatea
Agora! Astearen barruan, ostiral eta larunbaterako 20:00etatik 23:00etara

Osteguneko afarirako **sariduna:**
Milagros Lopetegi (Ibarra)

Saridunak Zerkausiko leihtailan izango ditu txartelak

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

Bonberenea Txaranga eta Lagunak

KONTZERTUA

Maiatzak 24, ostirala 22:00etan
Tolosako Sakramentinoetan



Zozketetan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

Udaberri dantza taldea + Lask abesbatza

ORITZADARRAREN BILA



Maiatzak 26, igandea • 12:00etan
Tolosako Leidorren

San Frantzisko pasealekuan eta Rondilla kalean obrak egingo ditu udalak

A. Imaz Tolosa

Oinezkoen irisgarritasun plana osatzeko azken bilera astelehenean egin zen. Diagnostikoa osatzeko unean, herriko hainbat eragilek oinezkoentzako bide nagusiak zuzenean aztertu dituzte, udal teknikarien laguntzaz. Behin azterketa eginda, gauzatu beharreko irisgarritasun obretan, aintzat hartu beharko liratekeen irizpideak eta obren lehentasunak zehaztu dituzte. Adostasunez, Rondilla kalea eta San Frantzisko pasealekua aukeratu dituzte hobekuntza lanen abiapuntu gisa.

Udalak, lehentasunak kontuan hartuta, obrak bi eremu horietan hasiko direla esan du. Horrez gain, aurrera begira, urtez urte egitasmo horrekin jarraitzeko asmoa agertu du: «Beraz, bildutako informazioak urteetan zehar egingo den plana egituratzeko bali izan du».

PSE-EE alderdiak Topic babestea eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari

A. Imaz Tolosa

Topic-entzat instituzioen errekonozimendua eskatu du PSE-EE alderdiak, Gipuzkoako Batzar Orokorrena eta Foru Aldundiarena, batez ere: «Gure kultura kolpatuak instituzioen errekonozimendua eta mimoak behar ditu».

Tolosako Topic-ek egiten duen lana azpimarratu dute PSE-EEko kideek: «Krisi garaian izugarriko esfortzua egiten ari dira zentrotroko zuzendaritza eta langileak. Mailla gorenko ohorezko errekonozimendua egin behar zaiela uste dugu». PSE-EEtik iragan astean Topic-ek Hezkuntza eta Museoen Nazioarteko Sari Iberoamerikarra jaso zuela gogoratu dute, eta estatu mailan nahiz Europan, Topic erreferente nagusienetakoa dela esan dute, «jaso dituen sariak erakusten duten bezala». Guzti horregatik, azken lau urtetan egin duten lana zoriontzekoa dela gaineratu dute.



Iragan asteko Harri Jaian 80 lagun inguru elkartu ziren Abaetxe jatetxean, hamaiketakoan. A. IMAZ

Asteburu Kulturalak emango dio Harri Jaiari jarraipena Bedaion

Ekainaren 2an Mendi eta BTT Martxa egingo dituzte; izena emateko aukera zabalik dago, 10 euroren truke

↓ Asteburu Kulturala, egitaraua

MAIATZAK 25, LARUNBATA

- 17:00. Ibai Esoain kontalariak *Bertsolaritza* ipuin kontaketa eskainiko du. Kantuek eta ipuinek osatzen dute emanaldia.
- 19:30. Xabier Amurizak *Lazkao Txiki, Bat bateko sorgina* emanaldia eskainiko du.

MAIATZAK 26, IGANDEA

- 11:00. Azkaraterako ibilaldia Abaetxeko lorategitik abiatuta. Bidean hainbat sorpresa izango dituen txangoa izango da. Ibilaldian zehar bazkaldu edo mokatu bat jateko aprobetxatuko da eguraldia lagun baldin bada.

Asier Imaz Bedaio

Bedaioiko Artubi Elkarteko kideek maiatza dotore atondu dute, ekitaldi desberdinez jantzia. Kultur ekintzak Harri Jaiarekin hasi ziren iragan ostegunean, eta orain, Asteburu Kulturalaren batera, mendi irteera ederra antolatu dute, «hainbat ezustekorekin».

Eguzkiak aukera berria izango duen hilabetea, ekaina, indartsu hasiko dute Bedaion. Euskara, natura eta kirola uztartzeko asmoz, alde batetik, VII. Mendi eta VI. BTT martxa antolatu dituzte ekainaren 2an. Artubitik azaldu dutenez, izena emateko aukera zabalik da, www.bedaio.com webgunean, 10 euroren truke. Ibilbideen inguruko informazioa ere helbide elektronikoa berean dago.

Bestalde, Kilometroak 2013ri erren atxikimendua erakutsiko diote bedaiotarrek. *Ahora!* lelopean, irteera antolatu dute Tolosako mendirik altuenera, hau da, Artubira. Izen bereko elkartetik hokin».

Kilometroak 2013rekin batera mendi martxa antolatu dute ekainaren 2an, Artubira

nela azaldu dute egitasmoa: «Kilometroak 2013k Tolosako landa auzoetara ere iritsi nahi du, eta honakoan, Bedaiora hurbilduko da; 1.262 metro dituen Artubi mendira. Bertatik *Ahora!* leloa

oihukatuko dugu». Euskarak mugarik ez duela irudikatu nahi dute ekimenarekin: «Euskarak ez du berezko hesirik, guk jarritakoak ez besterik, eta Tolosa KMK13k, hiriak eta landak dituzten atakak zabaltzen, landa auzoetara ere zabaldu nahi du bere oihartzuna».

Euskara eta KMK13rekin bat egin nahi duenak, Bedaiora gerturaz besterik ez du ekainaren 2an. Txangoari irteera 09:00etan emango zaio Abaetxeko lorategiatik. Aukera polita izango da, beraz, naturaz gozatzu eskualdeko paisaiak ezagutzeko, eta kirol apur bat eginez, Artubiko gaina zapaltzeko.

Irudia Altzo



TIRITATXOREN IPUINAK

Altzoko liburutegian Tiritatxo ipuin kontalaria izan zen iragan ostegunean. Bertara gerturatu ziren haurrak oso gustura egon ziren ipuinak entzuten, eta hareta handiz jarraitu zituzten Tiritatxoren ibilerrak. Ipuin kontalaria, Pupu eta Lore lagunekin joan zen Altzoko liburutegira, entzule txikien gozamenerako. HITZA



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
 - Farmazia teknikaria
- FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOA

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 27tik
ekainaren 7ra

Tel.: 943 67 36 29

www.inmakuladatolosa.com

Kukua iritsi bitartean, festari ekingo diote bihar anoetarrek

Maiatzaren 30eko egitaraua, herritarren borondatezko lanarekin emango da aurrera greba orokorra dela eta

Mikel Iraola Anoeta

Datorren asteko asteazkenean, kukuaren jaitsierarekin emango zaie ofizialki hasiera Anoetako jaiei. Asteazkena, nonbait, urruti ikusita, bihartik aurrera, ospakizunetan murgilduko dira anoetarrek.

Bihar, 22:30ean Anoetako Anitz Dantza Taldearen bilakaeraren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da kiroldegian.

Larunbatean, Kuadrillen Eguna ospatuko dute egun osoan zehar. Goizean krosa jokatuko da,

eta eguerdiko hamabietan jaurtiko da Kuadrilla Eguneko txupinazoa. Bazkaria egin ondoren, jokoak eta poteoa izango dituzte. Iluntzean berriz, Zopilotes Txirriaos talde nafarraren doinu mexikarrak izango dira entzungai.

Igandean, berriz, dantzari txiki eguna ospatuko da. Goizean zehar, inguruko herrietako nahiz Anoetako dantza taldeen ikuskizunak izango dira, beste hainbat ekintzen artean.

Kukua, asteazkenean

Kukuaren etorrerarekin hasiko dira festak ofizialki asteazkenean, eta ondoren danborrada izango da. Ostegunean, berriz, greba orokorra dela eta, aldaketa izan da aurreikusitako egitarauan. Festa Batzordeak euskal gehiengo sindikalak eta eragile sozial hainbatek deitutako grebarekin bat egiten



Pasa den urteko kukuaren jaitsiera. A. IMAZ

du, eta aurretik antolatutako ekintzak bertan behera geratu dira. Ondorioz, herritarren borondatezko lanarekin emango da aurrera egitarau hori.

Herri Txapelketako finalak jokatuko dira goizean, eta arratsaldean jolasak izango dira umeentzat. Iluntzean, kostila jatea izango da plazan, eta hamabietatik

aurrera, La Jodederak kontzertua eskainiko du.

Ostiralean, hilaren 31n, Umeen Eguna ospatuko da. Egun horretan, barraken prezioa merkeagoa izateaz gain, etxeko txikienei zuzendutako ekimenak izango dira nagusi, hala nola: jokoak, aparfesta edota pailazoak.

Hurrengo egunean, Gazte Egu-

na ospatuko da. Arratsaldean, kalejira egingo dute, eta ondoren, herri afaria izango da.

Ekainaren 2an emango zaie amaiera jaiei. Kupela erromeria taldeak alaituko du kukuaren igotzera kanpandorrera.

Udalaren arabera, festak aurrera eramateko aurrekontua, 37.900 eurokoa da.

↓ Egitaraua

MAIATZAK 24, OSTIRALA

■ **22:30.** Anoetako Anitz Dantza Taldearen bilakaeraren ikuskizuna kiroldegian.

MAIATZAK 25, LARUNBATA KUADRILLA EGUNA

- **10:00.** Herri krosa umeentzat plazan, eta segidan helduentzat.
- **12:00.** Koadrillen eguneko txupinazoa eta kalejira.
- **14:00.** Kuadrillen bazkaria pilotalekuan. Kuadrilla bakoitzak bere platerak, mahai tresnak, basoak eta ezpainzapiak eraman behar ditu.
- **16:30.** Kuadrillen arteko jokoak herriko plazan.
- **19:00.** Poteo animatua.
- **21:00.** Kuadrillen arteko afaria pilotalekuan.
- **23:30.** Zopilotes Txirriaos taldearen kontzertua plazan.

MAIATZAK 26, IGANDEA DANTZARI TXIKI EGUNA

- **10:00.** Inguruko herrietako dantza taldeen kalejira.
- **11:30.** Dantza taldeen emanaldia plazan. Bitartean, taloak jateko aukera izango da.
- **12:00.** Kulturartekotasunaren erakusketa plazan: Jatorri ezberdinetako anoetarrek beraien herrialdeetako gauza tipikoak erakusgai jarriko dituzte.

- **12:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **17:00.** Zaldi lasterketa kiroldegi ondoan.
- **18:30.** Pilota partidak: 4 t'erdiko txapelketaren finalak pilotalekuan.

MAIATZAK 29, ASTEAZKENA

- **18:55.** Herriko txalapartariak kukuaren etorrera iragarriko dute.
- **19:00.** Txupinazoa herriko plazan. Aurten, Anoetan euskara ikasten ari diren etorkinek botako dute suziria. Ondoren, kukuaren jaitsiera kanpai hotsekin eta danborrada Loatzoko txaranga-rekin.
- **20:00.** Kuku elkarteak antolatuta, sardina jatea plazan. Loatzoko trikitilariak alaituko dute. Sei sardinien platerkada batek, euro bat balioko du.
- **23:00.** Erromeria plazan, Ezten Giro taldearekin.

MAIATZAK 30, OSTEGUNA MOZORRO EGUNA

- **10:00.** XVI. Eskusko Pilota Herri Txapelketaren finalak, Udal Pilotalekuan antolatutak.
- **16:30.** Herriak herriarentzat antolatutak, ume jolasak plazan.
- **18:00.** Txokolate jatea plazan, Osinzulo elkartearen eskutik.
- **18:30.** Mobilizazioa plazan, greba orokorrarekin bat eginez.

- **21:00.** Kostila jatea izango da plazan, Anoetako Ezker Abertzaleak antolatutak. Tikitak salgai dira herriko taberna guztietan.
- **00:00.** La Jodedera taldearen kontzertua plazan.

MAIATZAK 31, OSTIRALA UMEEN EGUNA

- **10:30-13:30.** Ume eta gazte-txontzako parkea plazan.
- **11:00.** Herriko erretirodunen arteko toka txapelketa jokatuko da plazan, Alkartasuna Elkarteak antolatutak.
- **12:30.** Apar Festa umeentzat herriko plazan.
- **16:00.** Patxin eta Potxin pailazoak plazan.
- **18:00.** Loatzoko Ikasleen kontzertua plazan.
- **19:00.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **23:30.** D-Pintxos taldearen kontzertua plazan. Ondoren, erromeria Ingo al Deu taldearen eskutik.

EKAINAK 1, LARUNBATA GAZTE EGUNA

- **11:00.** Ume jolasak plazan, Kuki taldearekin.
- **12:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin. Iurrako eta Legazpiko erraldioak ere izango dira.

- **15:30.** Mus Txapelketa Giraldo tabernan.
- **16:00.** Txirridulari lasterketa ume eta gazte txontzatz Oriako Txirridulari Eskolak antolatuta.
- **16:30.** Alebin eta infantil mailakoen txirridulari lasterketa Oriakok antolatuta.
- **18:00.** Gazteen kalejira.
- **19:00.** Sagardo dastaketa, txorizo egosia eta gazta pintxoekin, Kuku elkarteak antolatuta.
- **21:00.** Herri afaria frontoian. Bihar amaituko da izen-ematea.
- **23:30.** Gazteen dantza plazan. Ondoren, DJ Bull.

EKAINAK 2, IGANDEA

- **08:00.** Sokamuturra plazan.
- **11:00.** Gorritiren festibala: zezentxoak eta poneyak.
- **12:00.** Paleta txapelketako finalak pilotalekuan, Kuku Pilota elkarteak antolatuta.
- **12:30.** Buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin.
- **17:30.** Herri kirolak plazan, herriko bi taldeen arteko giza-proba, *Amalurra* harriarekin.
- **19:00.** Kupela erromeria taldea, 20:30ak arte plazan.
- **21:00.** Herri afaria frontoian. Bihar amaituko da izen-ematea.
- **23:00.** Kupela taldearen saioaren jarraipena.
- **24:00.** Kukuaren igoera kanpandorrera. Ondoren, erromeria-jarraipena.

EKAINAK 9, IGANDEA

- **16:00.** Junior mailakoen txirridulari lasterketa, Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenez Oriako Txirridulari Eskolak antolatuta.

EKAINAK 23, IGANDEA SAN JOAN BEZPERA

- **18:00.** Buruhandi eta erraldioen kalejira txistulariekin.
- **20:30.** Herri afaria plazan. Izen-emateko epea, ekainaren 10etik 14ra udaletxean eta liburutegian.
- **22:15.** Txalapartariak San Joan bezperako suaren jaia iragarriko dute. Ondoren, suaren inguruan San Joan Zortziko kantuak eta erromeria Markox Landa aita-semeak aho soinuarekin.

EKAINAK 24, ASTELEHENA JUBILATUEN EGUNA

- **12:00.** Jubilatuei eskainitako meza. Ondoren, herriko dantzariak agurra dantzatuko dute jubilatuen omenez.
- **14:00.** Herriko jubilatua eta pentsiodunen arteko bazkaria Zuloaga Txiki jatetxean. Bazkal ondorenean, Amaia Agirre eta Txomin Azpiroz bertsoariak arituko dira giroa alaitzen. Ondoren, dantzaldira izango dute jatetxean bertan.

'Emakumeak busti egiten dira' proiektua jarriko dute martxan, Leitzaldean

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko emakumeek ibaiekin duten harremanaz tailerrak egingo dituzte

Iñigo Terradillos

Emakumeek ibaiekin eta urarekin izan duten harremanaz gogoeta egin eta erakustea du xede CRANA Nafarroako Ingurumenaren Arloko Baliabideen Zentroak Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin lankidetzan abian jarri asmo duen ekimenak. *Emakumeak busti egiten dira* izenburupean emakumeak elkartu nahi dituzte, ibaiekin izan duten erlazioa ikertu, eta hori egutegi batean ikusarazteko.

2010ean hasi ziren proiektuarekin, eta Nafarroako hegoaldeko hainbat eskualdetan osatu dituzte dagoeneko egutegiak. Aurten, berriz, iparraldeko isurialdeko

ibaietan kokatu nahi izan dute ekimena, eta horietan emakumeek izan duten presentzia erakutsiko dute.

Amaia Zalba Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun teknikariak azaldu bezala, eskualdeko 15 urtetik gorako emakumeak elkartu nahi dituzte. «Historian zehar eta gaur egun, ibaiekin edo uraren kudeaketa-rekin emakumeek izan duten harremana, eta horren inguruan sortu izan diren lanak, garbiketak, esaterako, esperientziak eta bizipenak ezagutu eta elkarrekin partekatuko ditugu», adierazi du.

Lau tailer

Proiektua gauzatzeko lau tailer egingo dituzte, eta emaitza 2014. urteko egutegia izango da. Egutegi horretan irudien eta testuen bidez irudikatuko dute Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko emakumeek urarekin izan duten harremana. Urte bukaeran banatuko dituzte doan egutegiaren 500

ale. Hauek lau herrietako egoitza publikoetan nahiz komertzioetan egongo dira eskuragarri.

Ekainaren 5ean leitzako udal-txean, 18:00etan hasita egingo den lehen tailerrean egutegiaren eraketa prozesuarekin hasiko dira, argazki zaharrak eta berriak alderatuz. Bigarren tailerrean, Marina Aoi idazleak hartuko du parte, eta partaideek egutegian azalduko diren idatziak landuko dituzte. Hirugarrenean, egutegiari forma emango diote, eta laugarren tailerrean guztia osatu eta kaleratu egingo dute.

Berdintasun teknikariak azaldu duenez, beste herrietan eginko tailerretan «esperientzia oso politak bizitu dituzte». Hala, proiektua osoa izan dadin adin guztietako emakumeak biltzea dela egokiena gehitu du, eta herriar oro animatu du parte hartzera. Interesa dutenek maiatzaren 31 baino lehen eman beharko dute izena gizarte zerbitzuetan 948 51 08 40 telefono zenbakian. Tailerra euskaraz izango da.

Irudia ◊ Areso



ASIARI BURUZ SOLASEAN

Aresoko Guraso elkartearen eskutik, herriko eskolan izan zen here-negun Agurtzane Belaunzaran berrobitarra bere azken bidaiaren inguruko argazki emanaldia eskaintzen. Pasa den urteko azarotik martxora bitarte Asia hegoekialdean zehar bidaiatu du Belaunzaranek, eta han bizitakoak kontatu zizkien gaztetxoei irudien bidez. Hango haurren eskola, bizilekua edota ohiturak azaldu zizkien, eta indonesiarrek nola janzen diren ere erakutsi zien. HITZA

Hitzaldi eta emanaldi sorta Lizartzako kultur astean

'Ameriketatik' ikus-entzunezkoa izango da gaur, eta pilota eta 'Ez gara Palestinaz ari' emanaldia, asteburuan

I. Terradillos Lizartza

Gaur ekingo dio Lizartzako Kultur Asteak *Ameriketatik* ikus-entzunezkoaren emanaldiarekin. Larunbatera bitarte hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango da. Etzi, esaterako, pilotaren txanda izango da, Udaberriko pi-

lota topaketak izango baitira pilotalekuan. Igandean, berriz, antzerkia, bertsoa eta poesia batzen dituen Imanol Kamio, Ander Lizarralde, Unai Muñoa eta Aitor Atzegaren *Ez gara Palestinaz ari* emanaldia izango da. Elikadura burujabetzaz, landareez edota sinneskeriez hitzaldiak izango dira, eta azken egunean, larunbatean, mendi irteera, musika emanaldia eta bertso afaria izango dira. Hitzaldi eta ikuskizunak kultur gunean izango dira ikusgai.

Herritar guztiak gonbidatu dituzte kultur asteko ekitaldietan parte hartzera.

↓ Egitaraua

■ **Maiatzak 23, osteguna.** Naiera Aginako eta Mikel Labaien *Ameriketatik* ikus-entzunezkoa, 20:00etan.

■ **Maiatzak 25, larunbata.** Udaberriko pilota topaketak, 11:00etan.

■ **Maiatzak 26, igandea.** *Ez gara Palestinaz ari* emanaldia, 18:30ean.

■ **Maiatzak 27, astelehena.** Elikadura burujabetzari buruzko hitzaldia, EHN Eren eskutik, 20:00etan.

■ **Maiatzak 28, asteartea.** Lan-dareei buruzko hitzaldia Jagoba Errekondorekin, 19:00etan.



Kultur Astean eginiko tailerra. HITZA

■ **Maiatzak 29, asteazkena.** *Magia, sineskeria eta sorginkeriaren historia Euskal Herrian*, Olatz Etxeberriarekin, 20:00etan.

■ **Maiatzak 30, osteguna.** Greba orokorra.

■ **Ekainak 1, larunbata.** Mendi irteera, Pagoluze eta Leizegaitora, 09:00etan abiatuta; 19:00etan, *Euskal kantugintza-ren historia*, Andoni Tolosaren saioa; ondoren, bertso afaria elkartearen, Egaña eta Lizasorekin.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



14°
9°

GOIZA EURI
ARRATSALDEA EURI
BEROENA 12°
HOTZENA 9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia **Amezketak**



AMURIZA, HARITUZEKO KIDEEKIN

Bertsozale Elkarteak hainbat ikastaro antolatzen ditu urtero, bertso eskolei begira. Tolosaldeko Harituz Bertsozaleen Elkarguneak, hiru aukeratu ditu ikasturte amaiera honetarako, eta Xabier Amurizak Amezketan eskainitakoa izan da lehena: *Xabier Amurizarekin hizketan*. Jende asko el-

kartu zen bere hitzak entzuteko. Hurrengo saioa Amasan izango da, eta Unai Iturriagak *Zelan epaitzen da (dugu) umorea txapelketan?* hitzaldia eskainiko du, hilaren 29an. Azkenik, Tolosan Maialen Lujanbio ariko da ekainaren 6an, *Gaiaren trataera, bertsolarien aldetik* jorratuz. ITZEA URKIZU

Agurrak



Urte askoan!
Maialen Zubeldia Azkolain (Ibarra). Gaur 5 urte! Zorionak birramona Tereren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalaretza lorategiak kalea, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarrren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Amasa-Villabona.** Ollogoyengo udalekuetara apuntatzeko azken aukera izango da gaur. 19:00etatik 20:00etara izena eman ahalko dute bai billabonatarrek eta baita inguruko herrietako gaztetxoek ere.
- **Leitza.** Kultur Aroaren barruan, 09:30ean, entrenamendu mentala izango da gazteentzat, institutuaren. 20:00etan, *Independentzia, Nafarroarik gabe?* mahai ingurua izango da Floren Aoi, Angel Rekalde eta Txente Rekondorekin, Aurreran.
- **Tolosa.** Jabekuntza eskolaren barruan, *Zaintza lanaren aitor-*

pena. Todas las horas cuentan hitzaldia izango da, 19:00etan, Aranburu jauregian. Hizlaria: Isabel Otxoa izango da.

- **Tolosa.** Maiatza Gorria jardunaldietan, *Arrash* filmaren proiektzioa izango da Otsabilerkatean, 19:00etan. Ondoren, Javier Rada eta Tarik El Idriisi zuzendariekin solasaldia.
- **Zizurkil.** Maiatza Saltsan ekimenaren barruan, Loatzo Musika eskolako kontzertua izango da, 19:00etan, Atxulondon.
- **Tolosa.** Oargi mendi taldeak asteburuan arroilen jaitsiera egingo du. Izena emateko azken eguna da, eta 688 69 86 42ra deituz edo *info@oargi.org*-ra idatziz eman beharko da.

Mauka berria

GAURKO ESKAINTZA

Tertangako etxean asteburu pasa

Prezioa 245€ asteburu

www.mauka.eu

berria taldea

Tertangako Etxea (Eskola zaharrak)
Kamaroste Auzoa, 01128 Tertanga
Aiaraldea - Araba
Tel.: 944-32 04 45
idazkantz@urxintxaeskolab.org
www.tertangakoetxea.org

ARRIARAN 1949

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.
LARRAMENDI, 28; 38 posta kutxa
20400 TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL. (943) 67.48.28 - FAX. (943) 67.49.82
www.arriaran.com

AVIA

Soterramenduko obrak dirauen bitartean

ABANTAILA HOBERENETAZ BALIATU ZAITEZ!!!

ALDI BATERAKO SARBIDEA
ARRIARAN GASOLINDEGIRA, NORABIDE GUZTETARA JOATEKO AUKERAREKIN ACCESO PROVISIONAL A LA ESTACION CON POSIBILIDAD DE ACCEDER A TODAS LAS DIRECCIONES

TXARTELEKO DESKONTUA %50AN GEHITU

GARBI EZAZU ZURE KOTXEA DOHAIN
ARRIARAN GASOLINDEGIAN GASOLINAZ HORNITUZ GERO

*OHARRA: Informa zaitzez promozio honetaz Arriaran gasolindegian.

Harpide egiteak saria du

Egin HITZaren harpidedun apirilaren 1etik maiatzaren 31ra arte, eta jaso

OPARI

Basoa banaketak eskainitako 3 ardo botila

eta

Harpidedun guztien artean

Arete Etxea nekazalturismoan bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info